

Elkarrizketa • 'Nik lan eta hik jai'

NEREA IRIARTE TELEBISTAKO AURKEZLEA

BAT-BATEAN

«Ez naiz bidaian joan eta erreportaiak bilatzen dituzten horietakoa»

XOUSA SIMAL



SOS LAIA

Estilo propioaz

Ane Sarasketa | DURANGO

Durango bizi da, eta bertan egin genuen hitzordua. Donostiatik zetorren, ordea; arrapataka, telebistako aurkezpen batekin.

■ Lanean honezkero.

Irailaren 3an hasi nintzen.

■ Opor tradizionalak, beraz: abuztukoak.

Oporrak beti ekainean hasten ditut; lanik gabe geratzen naiz ekainean. Beraz, bi hilabete oporretan edo langabezian egiten ditut.

■ Ongi bi hilabeteko oporrak izanda, ezta?

Aurten gustura hartu ditut; bagenekien irailean saioa hasiko genuela berriz. Beste batzuetan, ordea, luzeegiak egin zaizkit. Izan ere, ez dira opor-oporrak; langabezia izaten da.

■ Kanpora joaten zara?

Normalean, hemen ibiltzen naiz. Gaitegiz-Arteagan igarotzen ditut egun batzuk, Bizkaian. Beste batzuk Donostian, noski, nire lagunekin, nire familiarekin; oso donostiarra naiz.

■ Ez zara kanpora joan?

Astebete Afrika aldean egin dut. Beno, Fuerteventuran.

Donostian jaio zen Nerea Iriarte, 1969ko apirilaren 5ean. Orain, ordea, Durango bizi da. 12 urte daramatza EITBn lanean. «Bekadun moduan sartu nintzenetik», dio. Albistegietan, *Lo Que Falta* saioan... orain *Bertatik bertara* saioan egiten du lan –azken horretan emanaldiak bikoiztu zituztenetik–. «Akaso, kanpotik, Andoni Aizpururen eta nire arteko konparazioak egin zituen jendeak. Nik ez dut hala bizi izan. Banekien nire estilo propioa nuela. Gustatuz gero, ondo; baita bestela ere. Ni ezberdina naiz», dio ziurtasunez. Kazetaritzan kasualitatez murgildu zela dio: «Filologia hispanikoa ikasi nahi nuen, baina kazetaritza egiteko animatu ninduten etxean». Eta maite du bere lana. Baina badu tristura bat: «Kazetariok dena lardaskatzen dugu, baina ez dugu ezertan sakontzen».

Iribarre egitea kostatu egiten zaiola aitortu du, baina tarteka egiten du irribarre. Zintzo-zintzo erantzun die galdera guztiei; beno, ia guztiei. Tarteka, berak ere egin ditu zenbait itaun, kazetaria da eta. Zaletasun zehatzik gabekoa izan arren, irakurtzea izugarri gustatzen zaio. Orain, bi liburu ditu esku artean: Salingerren *Zekale artean harrapaka* eta Oteizaren *Quoske Tandem*.

Oso uharte polita da. Oraindik ez dago ustiatuta. Garai bateko hippie asko ikusi ditut.

■ Gustatzen zaizu bidaia-tzea?

Bai, baina, ez naiz bidaiaitzeko irrikan egoten naizen horietakoa. Hemen gelditzen banaiz ere, ongi ibiltzen naiz.

■ Bidaietan kazetaria izaten jarraitzen duzu?

Erraz ahazten dut hori. Ez naiz

bidaian joan eta erreportaiak bilatzen dituzten horietakoa. Aldiz, gertatzen ari den horren informazioa esku artean izatea gustatzen zait; bertakoa eta Euskal Herrikoa.

■ Lan turistiko bat emango dizut. Bidaietako gidaria bazina, Euskal Herriko zein inguru erakutsiko zenioke norbaiti astebetean?

Bilbora eramango nuke, Euskal

Herriko hirira. Nafarroako erriberara eramango nuke gero. Kolore horiko Nafarroa hori erakutsiko nioke, horia izanik ere Euskal Herria delako. Eta gero, Iparraldera; Zuberoara eramango nuke. Euskal Herriaren eta euskararen kolore ezberdinak erakutsiko nizkioke.

■ Nor ekarriko zenuke Euskal Herri hori ezagutzera?

Benetan ezagutu nahiko lukeen norbait; begiak irekita ekarriko lituzkeen norbait. Ez aurreiritziekin etorriko den inor.

■ Azterketetara ongi erreparatuta joaten zinen.

Dena prestatuta eramaten nuen. Bibliografia irakurrita. Ez nuen ezer zintzilik uzten.

■ Zure izaeraren isla ere badela esan digute; antolatua eta txukuna zarela.

Neurri batean, bai. Baina, gero, lasaitu ere egiten naiz. Eta hala-koetan gauzak nik nahi bezala irteten ez bazaizkit, haserretu egiten naiz neure buruarekin. Oso kritikoa naiz.

■ Lanean ere dena kontrolpean edukitzea gustatzen omen zaizu.

Hala nahi izaten dut, baina gero denak eskuetatik ihes egiten di-

Film bat. *Nueve reinas*.

Idazle bat. Bi: Saramago edo Daniel Pennac.

Urteko albiste onena. Aurten ez da albiste on askorik egon.

Txarrena. Dezente egon da. **Nor elkarrizketatuko zenuke gustura?** Joseba Sarrionandia.

Bizitzeko herri bat? Durango.

Amorratzen zaitu... Gauzak askok: goizean albiste txarrekin esnatzea. Edo berandu iristea.

Maite duzu... Goizean iratzargailuak IPCren albistearekin esnatzea edo. Goizeko lehen albisteak asko markatzen du nire eguna. Eta presarik gabe ibiltzea asko maite dut.

dala uste dut. Astakeriak ere egin izan ditut. Asmoa ona da, baina, gero, telebista berarengatik edo, denak ihes egiten didalako sentsazioa izaten dut.

■ Erokerientzat tarterik bada zure bizitzan?

Ez, hori ez. Ez dut asko kontrola galtzen, noizean behin ona izan daitekeen arren.

■ Zergatik?

Akaso kontrola galdu ondoren egunerokora bueltatzea asko kostatzen zaidalako.

■ Ez omen zara bat ere kirolaria.

Ez.

■ Baina saiatu dira zu horretan zaleztzen, ezta? Bizikleta, maillota erosi...

Ez da kirol kontua soilik. Zaletasun kontua ere bada. Ez dut zaletasun zehatzik. Nire inguruak saiatu dira zaletasunen bat egokitzen, baina ezin.

■ Beno, opera gustatzen zaizu. OLBE Opera Lagunen Bilboko Elkarteko kidea zara.

Hilean birritan operara joateko aukera izaten dut.

■ Opera aberatsen kontua dela uste izaten da askotan.

Ez pentsa. Sasoi batean oso herrikoia izan zen. Bilbon ez da hain zaletasun berezia. Be-saulki patioetan jende doto-rea dago. Baina galeria askoz ere handiagoa da.

■ Zuk kantatzen duzu?

Dutxan [barrez]. Baina gaizki.

■ Zaila da kazetaria izatea?

Serio hartuz gero, lan zaila da. Kontu handiz landu behar dira gaiak. Badira gai batzuk beste batzuk baino sentikorragoak direnak. Baina albiste guztiek behar dute tratamendu egokia: pertsonen, liburuen...